

UITZI

Joxe Mari Aranalde

“Naparroa zarrean”, han dago “Larraun’en Uitz, belar goxo tartean eper-kabi iduri”, Orixek dioen bezala “EUSKALDUNAK” poeman bere hazterriarengatik. Haren izenpeko ipuin eta olerki sariketa bat zen han, eta horren aitzakian naiz izana Uitzin. Nik nituen epaitzekoak olerkiak eta neskatxa batena zen nik hautatutako olerkia. Maite Toledo du bere grazia, eta “Gerri-eder” baluke bere izengoitia. Opa diot, berak hala nahiko balu, “Eleder” bat lagun, Mikel izan bera, edo beste bat izan. Horra deklaratu

zerk nauen eramana berrikitan Nafarroako herrixka maite horretara.

Maitea esan al dut? Ondo hala ere maitea, nahiz eta hala uste izan ez nire aurrean eseri zen jaun batek. “Hik ez duk Uitz maite” bota zidan aurpegira. Bestela maizago agertuko omen nintzateke. “Zuk uste ez duzula ere izaten naiz ni Uitzin –esan nion–. Ingurutik pasatzen naizen guztietan gelditzen naiz ni hemen. Jendeari esan ere egin diot behin baino gehiagotan hemen ingurutik ez pasatzeko Uitzin sartu gabe. Behin, Uitz ondotik pasa eta hemen ez zela sartu esan zidan bati ez niola gehiago eskurik emango esan nion (txantxetan, jakina). Beste behin, hemen ingurutik pasa behar zutela esan zidaten batzuei gero herrian sartzeko esan nien, eta musu emateko lurrari, hemen hazi zutela Orixeta”. Nik ez maite Uitz!

Baina jaun hark ez du uste nik haien herria maite dudarik, bakan samar ikusten omen nauelako. Nik berriz baietz, maite nuela. Eta Uitz-maitasuna nola erakutsiko nukeen adierazteko, honela hasi nintzaion: “Ni Uitzin bizi izango banintz...”; baina ez nuen aurrera segitzerik izan. “Zer egingo huke hik hemen bizi izango bahintz?”, bota zidan bero. Eta lehengoari helduz hasi nintzen ni berriz esaten, “Ni Uitzin bizi izango banintz, herri honetara datorren guztiak irakurri ahal izango luke Errekalde etxearen horma zaharretan Orixek bere “amandre” xaharrari eskainitako “Amona” olerkia. “Baina horrekin ez duk jaten”, atera zitzaion nire solaskideari duda handirik gabe. Gaizki jandakoaren itxurarik ez zeukan berak, eta gutxi edandakoarena ere ez, eta bazekikeen, beraz, nire kontu horiek ez dutela gosegarrirentzat kentzen.

Ez da gezurra, alde batera; baina ez dirudi egia osoa denik ere. “Ogi hutsez bizitzerik / nik ez dezaket sinets; / gizon batek hortxe dauzka / hainbat erdi ta saihets” kantatu zuen hark urdailarena ez den beste goserentzat ere adierazi nahi zuen.



Bai, badirudi urdailarena eta bihotzarena ez direla gose bat eta bera, giza jokabide askok eta askok erakutsi duten bezala gure mende honetan. Eta besteetan!


Zergatik ez da zerria bezala etzaten eta lokartzen gizakia bere jan-edanaren premiak ase eta gero, eta zergatik da hasten eder-gosea eta horrelako gauzak erakusten? Zergatik, esate baterako, ikusten da gaur zenbait jende bere bizitza pextak biltzen pasa eta gero bere arbola genealogikoa osatzen eta horrelako lanetan? Horrekin ez da jaten, baina bai da behar izaten. Gure beharrianak ez dira kitatzen ogiz bakarrik. Agustín handiaren aitormena ez zen gezurra orduan eta ez da gezurra gaur ere, nahiz eta ez jakin guk askotan zeren eskasia den gure ezinegona.

Batere ez dakit, baina apustu gaurko Uitzin ez dagoela gose-egarririk. Apustu beste nonahi bezalaxe zakurrek ere ogia sobrante daukate, eta apustu ez dagoela Uitzin zakurrik “nagusiaren mahaitik jalkiko den apurraren zain”. Apustu ezetz.

Eta, hala ere, nahiz eta gose-egarririk ez eduki, bila eta bila dabiltzala apustu uitziarrak beste zerbaiten. Zeren? Gure nortasuna hornitzeko beharrezkoak diren beste gauza askoren.

Haatik, nik Uitzin sarbiderik banu, edo aginpiderik edo horrelakorik, ikasia legoke gure mahaian eseri zen nexka hura Orixe izengoitiak zer esan nahi duen. Uitziarra izan nexka, hamaika bat urte eduki, Lekunberrin ibili ikastolan eta Orixe izengoitiak zer esan nahi duen ez jakitea zinez penagarria da.

Non dira euskara-irakasleak neskato hari bere herriko kontu jakingarriak ez erakusteko, eta ez esateko garai bateko uitziarrek Orixe esaten zutela Gipuzkoako Orexa-orduan Oreja-izendatzeko, eta hortik hartu zuela gure idazle handiak bere izengoitia? Non dira, behin eta berriz esanda ere, irakasle horiek? Eta horrek berak ekarriko luke esan beharra Orixe idazlea Orexakoa nola zen izatez, baina Uitzin hazia izan zela, Errekalde baserrian, eta bat eta



beste. Herri batean jaio eta beste batean hazi izanaren gakoa ere berehalaxe aurkiaziko zitzaion haurrari. “Hartzazu –esan zekiokkeen– “EUSKALDUNAK” poema, ireki ezazu “Danok bat” izena duen kantuan, eta han daukazu 6. bertsoan zergatia: *Ama gaisoak, aurraldi batez, / titi baiñon aur gehiago*”. Eta hori irakurtzean, besterik gabe jabetuko zen gure neskatoa Orixe hiru-kuia zela eta titi bila etorri zela haren herrira. Esaldiaren edertasunak berak utziko zion betirako josia Orixeren bizitzako berri garrantzizko hori. Nori ahazten zaio, izan ere, behin irakurriz gero “ama gaisoak, aurraldi batez / titi baiñon aur gehiago” bezalako esaldi paregabea? Titia eskas Orexan eta Uitziko Errekalde baserrian aurkitu. Horra historia.

Errekalde, Errekalde! Bitan eskergarria Orixerentzat. Edo milatan. Guztiz eskergarria Orexako “txori galdu” harentzat. Zer ez zuen, izan ere, aurkitu han, titi bila etorri zen haur hark!

Gutxienekotik hasiko naiz. Hura izan omen zuen bere “lenengo euskal-eskola”. Eta... beste guztiontzat ere ez al da hala gure jaiotetxea?, esan dezakezu zuk, irakurle. Eta ez da gezurra. Baina orexarrarenak badu aparteko zerbait. Hasteko, herria bera da euskaltasunez bereziki hornitutako herri bat. Poemako 2. bertsoak dio ederki. Hona:

“Lapurarrak erakuts belar-sega-lanen;
Bizkai'tik etor ziran txondarrak egosten;
giputz iaioak ere ba ziran lur-lantzen...
Bost ipui eder orok emen erain zuten!”
Ikusten nola izan den ereina euskal hazia Orixeren hazterrian?

Herrian hori. Eta Errekalden bada oraindik bestelako ereiterik. “Denok bat” kantuan ematen da ederki aditzera. Entzun:

“Basagizonak ara ziraden
igande gauetz ta neguz;
bizi giñanen belarri, biotz,
pozten ipuiez ta kantuz.
Jai egin eta, goiko ostatuan
oi baiño obeki afalduz,
basora baiño len an genitun
adiskidengana agertuz”.

Horra eskola horretako maisuak. Horra klaustroa. Unibertsitate bat ere ez al dirudi Errekalde, ahozkoa nagusiki bere kultura izan duen herri honetan?

Basagizon hauek koadrila dira, eta hangoz eta hemengoz osaturik dago koadrila. Euskal herri guztietako jendea bada hor. Bada bizkaitarrik –“saillean denak maitena”–, bada giputzik, bada lapurtarrik eta baxenapartarrik eta nonahikorik. Eta bakoitzak bere alderdiko kontua eta kantua ereiten du Errekaldeko sukaldean –“bost ipui eder”– gure “Eleder” –irakur Orixe– muttiko eta gaxte eta gaztearen aurrean. Hori klasea! Izango ez da bada “euskal-eskola” Errekalde? Ez nolana hikoia.

Nik, nire esku balego, ikazkin horien denen izenak han jarriko nituzke idatziak Errekaldeko hormetan, jendeak ikus ditzan eta ikas eta jakin zein maisu izan zituen orexar titi-gose hark. Eta ahal balitz, gainera, Orixe bakoitzarengandik esaten duenaren araberako marrazkiz jarriko nituzke. Zer ikus-kizuna izango litzatekeen! Esku on batek, Orixe aitatzen duen jende-modu harekin, galeria oso bat aterako luke.

Errekalde, Errekalde!
Gutxienekotik hasten gara esan dugu, etxe hori Orixe-
rentzat eskergarria zergatik den. Gatozen gehienekora.



Basagizonen izenek agertu beharko lukete, eta ahal balitz, marrazki eta guzti; baina Errekalde etxean urrezko edo ez dakit nik zerezko letraz idatzia, honako honek agertu beharko luke: “Alako yende onik ez nenunan arkituko billa ibillirik ere” (“Quito-n arrebarekin”, I-Uitzi ta Orix). Horra Orix hazi zuen familiarentzat eskerra eta omena.

Eta ohore hori familia osoari egin eta gero, “Mari Axuntxi Uitzita ta Zubieta” agertu beharko luke aparte eta nonahi eta mila modutara eta beste mila bat koloretara eta argitara ipinia. Eta batez ere “apailoan” –balkoian– beharko luke agertu. Eta hantxe ere beharko luke egon idatzia “Amona” poesia, Orixek bere “amandre Mari Axuntxiri” eskainia. Hura izan zuen gure orexarrak bere euskarririk eta babesik eta mireslerik handiena. Hark esaten zion harako hura: “Gure Nikolas muttiko txintxo, muttiko ernea”. Gora irakurtzen ere ez zekien amona miresgarri hura!

Hori guztia eta askoz gehiago egingo nuke nik Errekalde etxean, ahalmenik eta aginpiderik eta eskuarterik eta horretarako behar den beste zerarik banu. Baina “banu” eta horiek kontu arin samarrak dira.

Errekalden egingo nituzke, herrian egingo nukeen bezalaxe. Esate baterako, markatua jarriko nuke herrian, Mikeli sugeak hozka egin zion goiko belardi hartatik Errekalde etxerainoko bidea. Markatua jarriko nukeen bezala Uitzik Aralarko Aingeruari ongi etorria egiten dion gunea, han bertan Orixek Aingeruaren eskualdatze horretaz idatzirik dauzkan bertsoak idatzita jarri. “Lectio epistolae Uitziko” jarriko nukeen bezala herriko plazan. Etxe bakoitzaren zuzeneko izenaren ondoan ager dadila gaitzizena ere. Zeinek ote daki gaur Uitzin nola diren ezizen horiek?

Hitz batean, “EUSKALDUNAK” harrigarria sortarazi zuen zoru osoa jarriko nuke markatua Orixek dakarrenaren arabera. Zer eskola jarriko niekeen uitziar berriei begien bistan, eta nola hornituko litzatekeen haien “herritasuna” eta nola gizenduko haien nortasuna!

Baina zertarako hori guztia? “Horrekin ez duk jaten”. Baina bai da izaten.

